

HERNANIK kronika

2002 urtea
Otsailak 9
Larunbata
Alea: 418
www.hkronika.com



Añarbe oso bajatua dago. Ikusi hutsean nabarmentzen da urak non beharko lukeen eta non dagoen.

Lehorteak aspaldiko bajuena utzi ditu ur erreserbak

■ Azken egunetako erauntsiek mesede bai, baina ez dute lasaitzeko adina ur utzi ■ Añarbeko presa nibelaren % 47an dago ■ Hernaniko beste ur putzuetan oraindik bada ura. Baina zenbat?

AÑARBEKO urtegitik 10 herrik hartzen dute ura: Donostia, Errearteria, Pasaia, Hernani, Lasarte, Oiartzun, Usurbil, Lezo, Urmita eta Astigarragak. Guztira 302.092 lagunek. Aurtengo lehorteak nahiko jeitxi du urtegia, bere kapazidadetik % 47raino hain zuzen ere. Añarbeko mankomunitatetik jakinarazi digutenez, ordea, arduratzekoa bai, baina ez da alarma pizteko moduko datua.

Txarrenera ia 7 hilabeterako 37.279.625eko kapazidatea izanagatik, orain 17.683.969 metro kubiko ur daude Añar-

ben: batere euririk egingo ez balu sei hilabete eta erdirako adina ur gutxi gora behera. Eguraldiak, ordea, badirudi eurirako joera hartu duena, eta txarrenera ere iraila baino lehen egingo al du!

Mankomunitatetik restriktiorik ez dela izango esan digute, oraindik nahikoa ur badagoela-eta.

Txarrenera 1990ean

Aurtengo lehortea ona ez da, baina, gogoratzen den txarrenera 1990ekoa izan zen. Añarbeko urtegia 9.484 metro kubikotan gelditu zen, Kapazidatearen % 25ekin.

Orduan bai hasi behar izan zuten restriktzioak, iluntzetan-eta.

Aparraingo ur boltsak

Ereñotzura ura ez da Añarbetik eramaten, Aparraingo lurpeko putzuetatik baizik. Normalean putzuak gainezka egoten dira, eta sobratzen den uretik hartzen dute. Orain, ordea, putzutik tiraka ari dira aspaldi eta udal ur zerbitzuetatik esan digutenez ez dakite zenbat ur dagoen. Hala ere egoera ez omen da kezkatzekoa: "puska baterako ura badago, zenbat dagoen seguru ez badakigu ere".

3 putzu erreserban

Aparraingo 5 perforazioetatik 2 erabiltzen dituzte normalean, beste 3ek burni gehiegi dutelako. Baina, lehorte garaian ura depuratu eta erabili omen litezke 3 horiek ere. Noizbait erabili izan dute, baina, aurtengo oraindik ez da beharrik izan. Putzu hauez gain Hernanik badu Karabelen beste bat erabiltzen ez dena. Lastaola, Orona eta inguru horretara, berriz, Landarbasotik eramaten da ura. Putzu hauetan zenbat ur dagoen ez dago jakiterik, baina, jeitxi xamartuta beharko dute dagoeneko. □

■ FUTBOLA

Hernani-Hondarribi gaur Zubipen

GOIAN segitzekotan Hernanik berriz ere ratxa onari heldu behar dio. Hondarribia 12garren dioa 30 punturekin, eta ez luke Hernanitik punturik eraman behar, Jon Loranen mutilak ondo ari direlako. Partidua gaur 16:30etan. □

Saikapena	
1 Elgoibar	45
2 Lagun O.	44
3 Pasaia	42
4 Tolosa	42
5 Zarautz	40
6 Berio	38
7 Hernani	38
8 Gure T.	37
9 Aretxab.	37
10 Triberpe	35
18 Urola	20
19 Irun	17
20 Mutriku	15

■ ERRUGBIA

Hernani - Ordizia, gaur Landaren

HERNANIK sailkapeneko hirugarren ekipoaren kontra jokatuko da gaur arratsaldean. Partidu zaila bai, baina, ez du zertan ez irabazirik, azkenaldian oso ondo jokatzen ari delako. Ordiziari irabazten badio, 4garren posturako gerran ibiliko da eta hirugarrenetik 6 puntura geldituko da. Partidua gaur 16:30etan, Landaren. □

Saikapena eta tantoak alde eta kontra		
1 Durango	21	389 147
2 Cantabria	21	359 162
3 Ordizia	20	470 157
4 Gernika	12	226 205
5 Hernani	12	235 216
6 Bilbo	9	289 394
7 Iruña	8	175 302
8 Kakarraldo	6	179 466
9 At. San Seb.	5	207 294
10 Mungia	4	114 300

Kale Nagusia eta Kardaberaz itxita

INAUTERIAK direla-eta, Kale Nagusia eta Kardaberaz kaleak itxita egongo dira trafikoa zuzentzeko, gaur goizeko 09:30etatik aurrera.

Ford
Antziola-Motor
ZERBITZU OFIZIALA

HILABETE HONETAN 500 - 1200 EURO ARTEKO DTOA
SEGUN ETA ZEIN MODELOETAN.
Zatoz eta zerorrek ikusi gure eskaintzak.

ANTZIOLA AUZOA 12 - HERNANI - TFNOA. 943 55 57 72
Ordutegia: ASTEAN ZEHAR 9-13 ETA 16-20 - LARUNBATEAN 10-13

Urdin

Poltsa, lepoko, pitxi, lurrin eta abar

MERKEALDIETAN GAUDE

URDIN Osagarri Denda
Montebideo kalea 1
(EPO eta atletismo pista artean)
- HERNANI -

Xenon Computer


ESKAITZAK
kotxerako osagarriak
antenak
esku libre fijoak
instalazio gabeko
esku libreak
soproteak

ONE TOUCH 311

Mobiletan berriena:
ONE TOUCH 311
Kontratuarekin
102,11 euro.
PACK ACTIVA
173,90 euro
(30,05 deietan).
Bibratzaila, Wap,
ALCATEL logoak, alarma...

Telemar
ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

INAUTERIAK Axeri Dantza eta disfraz lehiaketa gaur



'Kid zana' (ezkerrean) eta 'El Potro de Etxeberri' boxeoa, atzo. Ikastoletako umeak.



'Urrezko Maxkuria' Etxeberriko Cuatreroei

PACO Muriana, Marcos Estefano eta Paco Floresek *Urrezko Maxkuria* jaso zuten atzo Inauteriak hasteko ekitaldian. Hirurak *Los Cuatros de Etxeberri* izenez dira ezagunak eta atzo ere garbi erakutsi zuten inauterietan giroa jartzen dutela. *Cuatreroak* boxerolariz disfrazatuta etorri ziren

omenaldira eta gero, *Kid Zanak* eta *El Potro de Etxeberri* asalto pare bat egin zituzten eliz aurrean. Espektakulua.

Ondoren, ikastoletako umeak, buruhandiak eta txaranga-ekin, kaxkoan barrena ibili ziren. Gero, trikiliariek jarri zuten giroa.

Disfraz lehiaketa gaur
Zezenek hasiko dute gaurko programa, 08:30etan, eta Axeri Dantza izango da 10:00etan. Arratsaldean, 16:30etan mozo-rra lehiaketa dago Tilosotan eta ondorenean mozo-rra festa.

Eguerdian eta gauean txaranga ibiliko da kalerik kale, festa giroten. □

Ipuin laburrak, poemak eta marrazkiak atera dituzte liburu batean hiru hernaniarrek

■ Tabernetan dago salgai liburuak 3,5 eurotan ■ 300 bat saldu dituzte dagoeneko.

¿donde fuiste Rimbaud? da liburu berriaren izenburua. Jo-setxo Martín Armendarizek ipui laburrak eta poesiak idatzi ditu, Itziar Lamuedra Calok poesiak, eta marrazkiak Pello Coellok egin ditu. Josetxok beste bi liburu idatziak ditu, eta Itziarrek poesiak idatzi bai, baina ez ditu orain arte inoiz argitaratu. Liburuak Hernaniko tabernetan dago salgai.



Ezkerretik Pello, Josetxo eta Itziar, liburuaren hiru egileak.

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK-							
FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	PELOTA	PELOTARIAK	NON	NOIZ
Gorengo maila	Hernani-Hondarribia	Zubipe	Gaur, 16:30	E.H. Txap			
Gazteak. L. Naz.	Erromo-Hernani	Gobela	Bihar, 11:15	Paleta goma jub.	Aufiamendi / Hoz-Lujanbio	Auritzberri	Gaur, 17:00
Gazteak Ohor.	Aloña Mendi-Hernani	Azkoagair	Gaur, 11:00	Paleta goma jub.	Auritzberri / Burutaran-Valero	Auritzberri	Gaur, 17:00
WATERPOLOA	TALDEAK	NON	NOIZ	Eskuz binaka jub	Zazpiterri / Alvarez-S. Sebas.	Amezketak	Gaur, 17:30
E.H. Lig Neskak	Hernani-Santoña	Kiroldeg.	Gaur, 13:00	Paleta goma	Luiando/Manzisor-Martinez	Luiandon	Gaur, 19:00
Gipuzkoako liga	Hernani A-Hernani B	Kiroldeg.	Bihar, 13:00	Erremonta	Agilar-Juaristi	Galarretan	Gaur, 09:00
ERRUGBIA	TALDEAK	NON	NOIZ	Udaberri Tza.			
Senior. 1. maila	Hernani-Ordizia	Landare	Gaur, 16:30	Eskuz inf..	Ojuel-Fernandez / Zurriola	Kiroldegia	Gaur, 16:00
Jubena. Euskal	Hernani-Mungia	Landare	Gaur, 16:00	Eskuz kad	Erdozio-Zurutza / Lazkao	Kiroldegia	Gaur, 16:00
Kadetea. Euskal	UPV-Hernani	El Fango	Gaur, 11:30	Eskuz binaka jub	Irazustaba-Leonet / Añorga	Kiroldegia	Gaur, 16:00
MAHAI TENISA	TALDEAK	NON	NOIZ	Mahai tenisean infantiletako Gipuzkoako liga gaur bertan hasiko da eta Hernani talde bat izango du hor. Partiduak kiroldegian jokatu dira.			
Bigarren maila	Iruña/Hernani-Easo	Iruñan	Gaur				
Liga Autonomi.	Easo-Hernani	Kirold.	Gaur				

HITZ BITAN



PSE-EEko sedea horrela zegoen atzo.

✓ PSE-EE

PSE-ko sedea karteletz josia. Ostiral goizean Alderdi Sozialistako sedea karteletz josia azaldu zen. Tankera honetako mezuak zeuden karteletan idatzita: *dispersioa*, *faxistak*, *atxiloketak*, *GAL*, *utzi euskal gaztedia pakean* eta antzekoak.

✓ BORROKA EGUNA

Manifestazioak atzo. *Hernaniko Gazteok* plataformak borroka eguna deitu zuen atzoko *Askatasuna* eta *Segi ilegalizatu* izana salatuz. Eguerdian eta iluntzean manifestazioak egin ziren *Zuena da terrorismoa*, *faxistak!!* lemarekin.

Bestalde, zenbait gazte gose greban dago Iruñean. Eskatzen dutena da "Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera gaintzeko konpromisoak hartzea". Gose greba egiten ari diren artean, bada hernaniarrik ere. *Hernaniko Gazteok* plataformak elkartasunezko bisita antolatu du eta gaur 09:30etan Atsegindegian egin dute zita. Kotxea duenak eramateko eskatu dute



Atzo eguerdiko manifestazioa.

✓ BEHEMENDI

Behemendiko azoka gaur Plaza Berrian. Base-riko produktuak salgai izango dira, gaur goizeko 09:30etatik eguerdiko 14:00ak arte. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalari anonimoak 943 331103

✚ FARMAZIAK

▶ Eguz: Aizpuru Latsunbe Berri 11 ☎ 943 336077
▶ Gauez: Diaz Andoain. Nagusia 19 ☎ 943 592057

IRAGARKI MERKEAK

Klase partikularrak ematen ditut. DBH arte, asignatura guztiak. Interesatuak deitu: 636 170877 Itzalai.

Etxea daukat salgai Latsunbe Berrin. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldia, jardina eta terraza. Prezioa negoziatzeko. 943 550581 - 943 555629

Hernaniko Kronika

Zure publizitatea
hemen
943 330 899



Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
IGANDE honetan
TRAKETS taldearekin.
19:30etatik aurrera
OIALUME AUZOA - 943 55 29 38